

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Turismo Kontseiluak Dolores Redondo saritu du Foru Komunitatea sustatzen laguntzeagatik

2014ko "Reyno de Navarra" sariak Nafarroako Landa Hotelen Elkarteak, Villa Clementina hotelak, Venta de Ulzama jatetxeak eta Gure Sustraiak aterpetxeak ere jaso dituzte.

Jueves, 27 de marzo de 2014

Juan Luis Sánchez de Muniáin Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak 2014ko "Reyno de Navarra" Turismoko Sarien aurtengo sarituen berri eman du gaur goizean. Nafarroako Turismo Kontseiluak ematen ditu sariak eta, aurten, [Dolores Redondo idazleari](#) aipamen berezia egin diote. Honako hauek izan dira sarituak modalitate bakoitzean: [Nafarroako Landa Hotelen Elkarteak](#), "Toki-entitateak, turismo-partzuergoak eta elkarteak"; [Murelu-Longidako Villa Clementina hotela](#), "Turismo-enpresak edo -enpresaburuak. Ostatu modalitatea"; [Venta de Ulzama jatetxea](#), "Turismo-enpresak edo -enpresaburuak. Jatetxeen modalitatea", eta [Gure Sustraiak Baserri Eskola aterpetxe turistikoa](#) (Ollaran), "Turismo-enpresak edo -enpresaburuak. Turismo-zerbitzuen bitartekotza, garapena, berrikuntza eta eskaintza".

Sariak, [urtarrilaren 23ko 2014/1 Foru Aginduaren](#) bidez deitutakoak, maiatzaren 5ean banatuko dira, Nafarroako Erdialdeko herri batean, kontseilariak baieztatu duenez. Kontseilariarekin batera Carlos Erce Eguaras Turismoko zuzendari nagusia izan da.

### Nafarroako turismoaren sektoreari buruzko datuak

Kontseilariak 2013 turismoaren egoerari buruzko txosteneko datu esanguratsu batzuen berri eman du. Bidaiaren kopurua % 2,2 hazi da: iaz, 1.102.000 bisitari ere izan ziren.

Atzerriko turisten kopurua da aipagarriena, % 10 egin baitzuen gora. Nafarroako ostatueta joan ziren bidaiaren kopuruak ere nabarmen egin du gora, % 6,4. Horren harira, Nafarroako ostatu turistikoetan egindako gauak 2.310.000 ere izan ziren. Sektoreak egin duen ahaleginari esker lortu dira emaitzak.

Donejakue bidea oraindik ere gora egiten ari den produktu turistikoa da. Iaz, erromesen kopurua % 11 areagotu zen; 63.866 erromes ere izan ziren.